

DONEZTEBEKO LIBURUTEGIKO

Indarkeria matxistaren aurkako

I. IPUIN LEHIAKETA

OINARRIAK

PARTE HARTZAILEAK

Gutxieneko adina 12 urtekoa izanen da.

Bi **KATEGORIA** izanen dira : 1. 12-16 urte bitartekoa (DBHko ikasleak)
 2. 16 urtetik gorakoak

LANAK

Euskaraz edo gazteleraz aurkezten ahalko dira lanak.

Parte hartzaile bakoitzak idazlan bakarria aurkeztu dezake, orrialde batekoa.

Ipuinak originala izan behar du, argitaratu gabea eta aurkezten den hizkuntzan idatzitakoa, ez da itzulpenik onartuko.

Lanak DIN A4 formatuan, espazio bikoitzarekin idatziko dira, "Arial" letrarekin eta 12 puntuko letra tamainarekin.

GAIA

Ipuinaren gaia honako hau izanen da:

" Zer eginen zenuke zure inguruko norbaiti bikotekideak tratu txarrak eragiten dizkiola jakinen bazenu?"

EPEA

Lanak aurkezteko epea 2019ko Otsailaren 8a izanen da.

AURKEZPENA

Lanak posta arruntaz edo posta elektronikoz bidal daitezke.

POSTAARRUNTAZ, Doneztebeko liburutegira bidaliko dira. Bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian (Foru enparantza, 1 , 31740 DONEZTEBE)

Lanak bikoiztuta aurkeztuko dira, gutunazal baten barruan. Gutunazalaren kanpoko aldean hau adieraziko da: "Doneztebeko liburutegiko indarkeria matxistaren aurkako I. ipuin lehiaketa" eta zein kategorian parte hartzen den, 1 edo 2.

Original bakoitza ezizenez sinatuko da.. Gutunazal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutunazal itxi bat sartzea. Gutunazal horren kanpokaldean ezizena bakarrik jarriko da eta barruan datu hauek idatzi behar dira

orri batean: ezizena, egilearen izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, jaioteguna, harremanetarako telefono zenbaki bat eta egilearen e-posta.

POSTA ELEKTRONIKOZ, bibliodoneztebe@yahoo.es helbidera bidaliko dira.

Ipuina ezizen batekin sinatua atxikita bidaliko da PDF formatuan, eta beste dokumentu batean: ezizena, egilearen izen-abizenak, NAN zenbakia, jaioteguna, helbidea, harremanetarako telefono zenbaki bat eta egilearen e-posta.

Antolakuntzak ipuinak soilik bidaliko dizkie epaileei, egileen anonimotasuna mantentzeko.

HAUTAKETA PROZESUA

Epaimahahia Antolakuntzak osatuko du (literartura edota berdintasun ekimenetan dabilen jendeak osatua)

Hautatutako lanak 2019ko Martxoan emango dira ezagutzera, emakumearen egunaren inguruan.

SARIAK

Kategoria bakoitzeko sari bat izanen da.

1. Kategoria : 12-16 urte bitarte (DBH)
 - 100 euroko txartela Ostiz liburudendan gastatzeko irabazlearentzat.
 - Bigarren eta hirugarren sailkatuentzat 50 euroko txartela Ostiz liburudendan gastatzeko
2. Kategoria : 16 urtetik aurrera
 - 150 euroko saria irabazlearentzat
 - Bigarren eta hirugarren sailkatuentzat 50 euroko txartela Ostiz liburudendan gastatzeko.

JABETZA

Lanak Doneztebeko liburutegiaren jabetzan geldituko dira eta kultura jarduerak egiteko zein sentsibilitate kanpainak hedatzeko asmoz argitaratu ahal izanen ditu, egilearen izena aipatuta.

OHARRAK

Lehiaketa honetanparte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea Dakar berekin.

ANTOLATZAILA: **Doneztebeko Liburutegia** . LAGUNTZAILAK:
Doneztebeko Udaleko berdintasun eta kultura saila, Mendaur institutua,
Malerrekako Mankomunitatea, Doneztebeko Merkatari eta Zerbitzu Elkarte.